

Urtearen amaiera hurbildu ahala, Etzi.pm osatzen dugun lantaldeak eta komunitateak geure buruari elkargune bat eskaintzeko tenorea heldu da. Urte oparoa izan da 2017a Etzi.pm-
rentzat eta zuekin ospatu nahi dugu **abenduaren 23an [Lakari kooperatibak](#) Zarautzen duen txokoan.**

Aurten ere Etzi Eguna probestuko dugu Etzi Sariak banatzeko. Ondorengo hiru kategoriatako artikulurik onenak sarituko ditugu:

- *Etzi Utopia*. Etzi izan nahi dugun hori hoberen irudikatzen duen artikulurik utopikorik onenari saria.
- *Etzi Distopia*. Inondik ere nahi ez ditugun etorkizun posible horiek irudikatzen dituen artikulurik onenari saria.
- *Etzi Gaur*. Aktualitatearen analisi onenari saria.



Baina berrikuntzak ere baditugu. Datozen egunetan kategoria bakoitzeko artikulu finalistak aditzera emango ditugu sare sozialetan eta zuek izango duzue azken hitza.

Sari banaketaz gain, *Gramofonoaren* saio berezia grabatuko dugu bertaratutako jende guztiarekin. Zuek, etorkizunean izan nahi dugun hura gaur erabaki nahi duzuen guztiak, gonbidatuta zaudete. **Animatu eta eman izena, ospatzen ez dena ez baita existitzen!**

Mila esker Etzi gaur posible egiteagatik!

[contact-form to="etzi@talaios.coop" subject="Etzi euna"]
[contact-field label="Izen Abizenak" type="name" required="1"]
[contact-field label="Email helbidea" type="email" required="1"]
[contact-field label="Elikadura alergiak edo/eta berezitasunak" type="textarea"]
[contact-field label="Besterik" type="text"]
[/contact-form]

